

## KONTROL MOZIOA

### Marrutxipiko eremuaren mantenua dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroaren 13an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 19an prentsa bidez jakin genuen Dbuseko kotxera azpiko eremuan, Marrutxipin, dagoen AHT materiala eramatea eskatu diola Udalak Adifi. Irakurri genuenarengatik, arrazoia da AHTko materialen artean dauden tutu handietan jendea egoten dela lotan. Aspaldi dago eremu hori hondakinez eta materialez betea eta aspalditik ez da haren mantenurik egiten.

Honi guztiari buruz galdetu genion Udal Gobernuari eta zinegotzi ordezkariak erantzun zigun Udal Gobernuak ez diola Adifi eskaerarik egin, eta gainera bertan dagoen materiala eta tutuak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak direla. Zehazki, Marrutxipiko errepide berriaren lanetan erabiltzen ari diren materiala dela.

Bertan bizi den jendeari buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariak esan zigun zortzi pertsona identifikatu zituztela bertan; horietako bat Abegi-etxean zegoela eta beste bat, GLUZekin harremanetan. Besteei buruz ez zekien ezer ez.

Bestalde, gogorarazi behar dugu 2021ean Ekialdeko Barrutiak eta Udal Gobernuak onartu zutela eremu horretan Sorleku parkea egitea. 2023ko martxoan jendaurrean aurkeztu zuten Sorleku parkeko proiektua eta hura martxan jartzeko epea ireki zen. Sorleku parkearen etorkizunari buruz, zinegotzi ordezkariak kontatu zigun exekuzio-proiektua idatzia dagoela jada eta urte honen amaieran

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

onartuko duela Tokiko Gobernu Batzordeak. Sorlekuko lanak 2024eko uda amaieran hasiko omen dira eta hura egiteko epea 5 hilabetekoa da.

Argi dago eremu hori hondakinez betea dagoela eta, bertan proiektu bat egonik, ezinbestekoa dela lehenbailehen esku hartzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Gipuzkoako Foru Aldundiari eska diezaiola Marrutxipiko eremua garbitzea eta bertan dauden materialak, hondakinak eta tutuak lehenbailehen kentzea.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Marrutxipiko eremua garbitzerakoan, bertan lo egiten duten pertsonekin harremanetan jar daitezten udal gizarte zerbitzuak eta GLUZetik, negu atarian gaudela kontuan hartuta, aterpe bat eskaintzeko.

Donostian, 2023ko azaroaren 17an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia